

PRENTSA OHARRA

FAMILIA EGONALDIA

Aste oso bat, euskararen munduetan barna

2026an, Euskal Herri osoko familia egonaldi ibiltaria berritasun ugarirekin itzultzen da. 2025eko edizioaren arrakastaren ondoren, antolatzaileek formula hobetu nahi izan dute eta zenbait hobekuntza gehitu.

Hori aurkeztu dute 2026ko urtarrilaren 9an, Baionan. Plazara, AEK, Uda Leku, Dindaia eta Ebete elkarteetako kideak izan ziren bertan, proiektu berritzaile hori beren babesten duten instituzioen ordezkariekin batera: Mathieu BERGE eskualdeko hautetsia (Poctefa eta Euroeskualdeko ordezkaria), Javi ARAKAMA Euskarabidea erakundeko zuzendari kudeatzailea (Nafarroako Gobernua), Iker GOIRIA kanpo harremanetarako zuzendaria (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta JohaÑe ETXEBESTE EKEko zuzendaria (Euskal Kultur Erakundea).

Euskara, familia giroan

Familia egonaldiaren helburu nagusia parte-hartzaileen euskara-maila hobetzea eta familien hizkuntza-ohiturak aldatzea da, baina baita Euskal Herriko lurralde desberdinak hizkuntza eta kultura euskaldunaren bitartez ezagutzea ere. Esperientzia horrek kolektiboaren balioak, elkarbizitza eta lankidetzat indartzen laguntzen du.

Formula sinplea da:

- Goizean: gurasoentzat euskara-ikastaroak, haurrentzat jolasak.
- Arratsaldean: adin guztietako jarduerak 100% euskaraz.
- Gauean: iluntze eta animazio lasaigarriak familian.

Badu zenbait urte orain Hego Euskal Herriko euskaltegi batzuek familia barnetegiak proposatzen dituztela, arrakasta polita bilduz. Bertsio honen berezitasuna izaera ibiltarian eta mugaz gaineko dimentsioan oinarritua da. Izan ere, aurten ere Ipar Euskal Herriko oporrak eta Hego Euskal Herriko Aste Santuak batera erortzen dira; egutegien lerrokatze horrek euskararen lurralde osoko familien parte hartzea susta dezake.

Hiru egonaldi pertsonalizatu

2026an, abentura familiar hau berritasunekin itzultzen da: egonaldi luzeagoak, prezio merkeagoak, aitatxi-amatxiek parte hartzeko aukera eta, batez ere, udako egonaldi berritzailea.

Norberak bere beharretara egokitutako egonaldia aurki dezake:

- Apirilak 5-11: Hobekuntza barnategia, Zuberoa eta Nafarroa artean.
- Apirilak 13-18: Erdi mailako ikastaldia, Lapurdi eta Nafarroa artean.
- Uztailak 20-25: Familia euskaldunentzako espedizio ibiltaria, Euskal Herri osoan zehar.

Talde profesional eta kualifikatu batek errezibituko ditu familiak (animatzaileak, irakasleak, soziolinguistak, psikologoak...). Bestalde, egonaldi mota horretarako egokiak diren zentroetan (Irabarneko Gaztelua, Arantzako Aterpea, Arbonako Arantzola, Bakaiku, Lartzabaleko Espelletenia, Ondarreta Aterpetxea).

Dimentsio humanoa zaintzeko asmoz, egonaldi bakoitza 20 familiara mugatuko da, 3 eta 11 urte bitarteko hurrekin. Prezioa 300€ eta 965€ artean kokatzen da aste bakoitzeko, formula eta haurren kopuruaren arabera. Prezio horrek honako guztiak barne hartzen ditu: bazkariak, garraioa, ostatua, jarduerak, ikastaroak, animazioak eta materiala. Egoeren arabera, laguntzak ere eskura daitezke (beka, CPF...).

Lehen mailako erakunde laguntzaileen babesari esker, egonaldi hauek prezio eskuragarrian eskaintzen dira. Milesker:

- Poctefa funts europarrak
- Akitania berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdea
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskal Kultur Erakundea

1. egonaldia : Hobekuntza barnetegia	2. egonaldia : Erdi mailako ikastaldia	3. egonaldia : Familia euskaldunentzako espedizio ibiltaria
• Apirilaren 5etik 11rat • Igande arratsetik, larunbat eguerdira • 7 egun - 6 gau • Xiberoa > Nafarroa • B1-B2 mailako helduentzat eta haien haurrentzat.	• Apirilaren 13tik 18rat • 6 egun - 2 gau • Astelehen goizetik, larunbat eguerdira • Lapurdi > Nafarroa • A2-B1 mailako helduentzat eta haien haurrentzat.	• Uztailaren 20tik, 25erat • 6 egun - 5 gau • Astelehen goizetik, larunbat eguerdira • Baxe Nafarroa > Gipuzkoa > Nafarroa • EH osoko familia euskaldunentzat

IZEN EMATEAK: 2026KO URTARRILAREN 30A ARTE

0033.775.66.58.04

www.plazara.eus/familia-egonaldia

oihan@plazara.eus - joana@plazara.eus

Argazkiak: <https://plazara.eus/fr/familia-egonaldia/#argazkiak>

Bideoak: <https://youtu.be/Pf6DsyPgNYE?si=SNPVPS8PBXQB89NQ>

https://youtube.com/shorts/WFT2i8icmGo?si=Y1o_5eZibg3X0hbr

PRENTSA HARREMANETARA:

oihan@plazara.eus - joana@plazara.eus - (33)775.66.58.04.